

## ELKARTASUN HAIZEA DABIL

Kontzientzia internazionalista, beti bizirik dagoena zenbait sektore sozialengan, aktibatu ohi da erantzun irmoak behar dituzten eraso inperialistak gertatzen direnean. Venezuelaren aurkako egungo eraso horietako bat da. Antzeko egoeretan bezela, harremanak estutu egiten dira eta bakoitzaren hausnarketek elkar aberasten dute. Horietako batzuk jaso ditugu.

### “Guztiok gara Venezuela” Mundu-mailako Topaketak (2018ko martxoan)

Caracaseko Teresa Carreño antzokian egin ziren topaketa hauek eta 95 herrialdetako 300 lagun baino gehiagok parte hartu zuten. Hauek dira bertan entzundako ahotssetako batzuk:

- “Venezuela Bolibartarrak borroka sandisnistaren puntu gorenetan emandakoak bezalako elkartasun besarkada berezi eta irmoa jaso du internazionalismoarengandik, kubatar Iraultzak beti eragin dituen maitasun uholdeen antzekoa” (Nicolás Maduro, Venezuelako presidentea).
- “Munduko herrien elkartasuna eskertzen dugu” (Jorge Arreaza, Venezuelako Kantzileria).
- “Amerika Latinaren etorkizuna Venezuelen jokatzeko da gaur, eskusartze militar estatubatuar baten aurrean. Hemen jokatzeko da nire justiziar buruzko pentsakera datozen 50 urteetarako” (Alvaro Garcia Llanera, Bolibiako presidente ordea).
- “Bolibartar Iraultza defendatzea gure prozesuak defendatzea da, eta munduko edozein txokotan jendeak bere utopiak eraikitzeak aukera defendatzea. Herrien autodeterminazioa dago jokoan. Venezuelaren ekarpenik handiena bere proiektuaren alde borrokan ari den herri baten erresistentzia gaitasuna erakustea da” (Esther Ceceña, Mexikoko ekonomilaria eta Geopolitikako Latinoamerikar Behatokiaren koordinatzailea- Olag).
- “Antolakunde eta mugimendu sozialak hemen gaude Latinoamerikarentzat bakea eta gure herrien subiranotasuna defendatzeko. Ezin dugu utzi inperioek prozesu iraultzaile hau suntsi dezaten” (Doris Gonzalez Lemonau, Amerika Latinako mugimendu sozialetako kidea).
- “Iraultza Bolibartarra inspirazio indartsua da herri afrikarrentzat: esplotazioaren, inperialismoaren eta kapitalismoaren aurkako borroka errepresentatzeaz gain, bere historiaren kontrola hartu duen herri baten sinboloa da” (Lewis Maghanga, Kenya-Venezuela Elkartasun eta Laguntasun Komiteko kidea).
- “Venezuelako herri iraultzailearekiko elkartasuna bidegurutze historiko bat da, elkartu dituen Libertadorearen oinerdekotza, *caracazoan* herriaren borroka duina eta Venezuela – Kubarekin batera – Amerika Latina eta Karibeko sozialismoaren gotorlekua bilakatu duen salto handia” (Fernando Buen Abad Dominguez, Lanuseko Unibertsitate Nazionalen Kultura eta Komunikazio Institutuko zuzendaria).

Topaketetako azken adierazpenak honela dio:

“Venezuelako herriarekiko gure elkartasun eta babes militantean berresten gara, eta Nicolas Maduro Moros kideak gidatzen duen herri Gobernuarekikoan”:

### **“Venezuela gara Demokrazia eta Bakearen alde” Nazioarteko Jardunaldia**

Caracasen egin zen jardunaldi hau 2019ko martxoan. Ordurako eraso gogortu egin zen eta Maduro Presidentearen hitzek deialdi indartsu bat luzatu zioten munduari: “Elkartasunik handiena eskatu nahi dizuet, eta altxa dezagun, munduko burkideok, Venezuelatik elkartasun mugimendu indartsu bat, salatzeko, gaitzesteko eta garaitzeko gringoen eskusartze-militar baten mehatxua”.

### **Euskal Herritik**

Euskal Herriak hogei urte daramatza Venezuelako prozesu iraultzailea babesten: “gure herrian garatu den elkartasun internazionalistak erreferente bilakatu gaitu Venezuelarekiko elkartasunean, eta iraultza bolivartarraren bidelagun izan gara azken 20 urteotan. Hala erakusten dute estatu kolpe honen aurka Euskal Herrian antolatu ditugun hamaika elkarretaratze, hitzaldi eta elkartasun ekintzek, hamaika herri komunikabidetan egindako elkarrizketek, eta urte hauetan guztietan brigadista izandako ehundaka brigadisten konpromisoak. Euskal internazionalismoa eredu da gainontzeko herrientzat ere.” (*Iraultza Bolibartarra defendatzeko garaia da. Askapena eta Pakito Arriaran fundazioaren komunikatua*).

Zertan datza defentsa hau?

“Iraultza bolivartarra defendatzeak gaur Venezuelako herriaren burujabetza eta herritarren bizitzak defendatzea esan nahi du, guztiz aurkakoa bilatzen duen sistema politiko baten aurrean”

IRAULTZA BOLIVARTARRAREN DEFENTSAN

**VENEZUELA**  
*avvenera!*  
**¡NO AL GOLPE!**

**MANIFESTAZIO NAZIONALA**  
BILBO • MAIATZAK 4 • 18:00 • ELIPTIKA PLAZA

EUSKAL HERRIA VENEZUELAREKIN EKIMENA